



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2023ko lehenengo hiruhilekoa



LABORAL
kutxa

AURKIBIDEA: EDUKIAK ETA EMAITZAK

Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren bilakaera	3
Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren Osagarriak	7
Euskal Kontsumitzailearen erosketa-erabakiak.....	13
Eranskina – Aurkibideak	19
Eranskina – Metodologia	23
Fitxa Teknikoa	26

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN BILAKAERA

- EAEko familien konfiantza hobetu egin zen, baina negatiboan jarraitzen du
- Estatuko eta EB-27ko familiak ezkorragoak dira
- konfiantzarik eza da nagusi Europako herrialdeen artean




1 EAEko familien konfiantza hobetu egin zen, baina negatiboan jarraitzen du

2023ko lehen hiruhilekoan, EAEko familien konfiantzak 14 puntu egin du gora, baina oraindik ere balio negatibotan dago. Zehatzago esanda, EAEko familien konfiantza-indizea -9 puntukoa da. Zifra horrek, negatiboa den arren, nabarmen hobetzen du 2022ko bigarren seihiilekoko emaitza, ordukoa erabat eta argi eta garbi ezkorra izan baitzen.

Azken hirurtekoan (2020-2022), kontsumitzaileen konfiantzaren profila oso aldakorra izan da, "ia" esperogabeak ziren gertakariak direla eta: pandemiaren eta pandemia osteko egoeraren inpaktuaren jarraian -konfiantza-indizean jaitsiera handiak eta ondoren gertatutako gorakada-, gatazka belikoak (Errusia-Ukraina) sortutako ziurgabetasuna eta, batez ere, gorakada inflazionista iritsi dira -horren ondorioz, berriro ere konfiantzak nabarmen egin zuen behera-.


Kontsumitzaileen konfiantza. EAE



2 | Estatuko eta EB-27ko familiak ezkorragoak dira

Estatuko eta EB-27ko familien konfiantza zertxobait suspertu da (+5 puntu, bi kasuetan), baina EAEko familiek erakutsitakoa baino proportzio txikiagoan (+14 puntu). Horren ondorioz, Estatuko (-23) eta EB-27ko (-21) familien konfiantza-indizea oraindik ere EAEko familiaena (-9) baino ezkorragoa da.

Hala, 2023. urtearen hasierak susperraldi txiki bat erakusten du bi hiruhileko oso negatiboren ostean, inflazio-egoera orokorrak baldintzatuta. Urtean zehar prezioen igoeran nolabaiteko geldialdia gertatzearekin lotutako aurreikuspenak izan daitezke familien igurikimenean gertatu den hobekuntza arin hori bultzatu duten faktore nagusiak, nahiz eta igurikimen horiek oraindik ere ezkorrak diren.



1. I. hiruhilekoko datua behin behinekoa da EB-27 eta Espainiarentzako. Urtarrila-otsaila batez bestekoa.


3 | konfiantzarik eza da nagusi Europako herrialdeen artean

Europako herrialdeei dagokienez, familien konfiantzan hobekuntza arina izan da, oro har, kontuan hartutako herrialdeetan. Zehatzago esanda, Alemanian (+7 puntu), Danimarkan (+6 puntu) eta Herbehereetan (+8 puntu) izandako hobekuntza EAEko familiek adierazitakoaren (+14 puntu) antzekoa da. Aldiz, Frantzian egonkor (-1 puntu) mantendu da.

Hala, Alemaniako (-18), Danimarkako (-13) eta Herbehereetako (-21) familien konfiantza zertxobait hobetu da, baina oraindik ere balio ezkorretan dago. Frantziaren kasuan, profilak ez du aldaketarik izan duela lau hiruhilekotik, eta hobekuntzaren bat izateari dagokionez eszeptizismoa da nagusi.

Egoera inflazionista orokorra da eta horrek bultzatu du erreferentziatzko interes-tasen igoera. Hamabi hilabetera begirako Euriborra % 3,5 baino handiagoa da eta horrek, aldi berean, familien erabakiak baldintzatzen ditu, finantzaketa garestitu izana nabaritzen ari baitira dagoeneko.

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE eta erreferentziatzko herrialdeak



1. I. hiruhilekoko datua behin behinekoa da EB-27 eta Espainiarentzako. Urtarrila-otsaila batez bestekoa.

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN OSAGARRIAK

- ekonomia orokorrarekiko igurikimenen hobekuntza, baina ezkortasunean
- langabeziarekin lotutako igurikimenek susperraldia sendotu dute
- eta familiako ekonomiaren gaineko igurikimenak ere suspertu egin dira
- horren ondorioz, aurrezteko igurikimenek gora egin dute
- konfiantza-elementuen hobekuntzak ez du baikortasunarekin bat egin


4 | ekonomia orokorrarekiko igurikimenen hobekuntza, baina ezkortasunean

Hurrengo hamabi hilabeteotarako ekonomia orokorraren inguruko bilakaerari buruz EAEko familiek dituzten igurikimenak nabarmen hobetu (+20 puntu) eta zertxobait suspertu (-19) dira eta, ondorioz, 2022ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan izandako balio oso negatiboetatik aldendu dira (-37 eta -39, hurrenez hurren).

Emaitza horrek agerian uzten du EAEko familien heren batek baino gehixeagok (% 35,2) uste duela egoera ekonomikoa berdin mantenduko dela. Aldiz, ugaritu egin dira egoera zertxobait (% 17,2; +13 puntu) edo askoz hobea (% 0,9; +0,9 puntu) izango dela uste dutenen taldeak.

EAEko familien igurikimenak 2022ko Euskadiko ekonomiaren hazkundearekin bat datoz (+% 4,4) eta luzatzen ari den gatazka belikoaren, prezio energetikoen gorakadaren eta, oro har, espiral inflazionistaren aurrean erakutsitako erresilientzia baieztatu da. 2023ra begira, hazkunde ekonomikoko igurikimenak neurritsuak dira (% 1,5 ingurukoak).

Ekonomia orokorrari buruzko egoeraren igurikimenak. EAE




5 | langabeziarekin lotutako igurikimeneak susperraldia sendotu dute

2023ko lehen hiruhilekoan, langabeziaren bilakaerarekin lotuta EAEko familiek adierazitako igurikimeneak hobetu (+8 puntu) egin dira berriro eta, oraindik negatiboak (-6) diren arren, aurreko bi hiruhilekoekin alderatuta, susperraldia sendotu egin da, baina 2021eko baikortasunera iritsi gabe.

Langabezia hurrengo hamabi hilabeteotan gehiago haziko dela uste duten familien taldeak izandako jaitzieraren (% 42,3tik % 35era) eta mantendu (% 36,9tik % 38,3ra) edo jaitsi (% 20,7tik % 26,7ra) egingo dela uste dutenen taldeak izandako igoeraren ondorioa da emaitza hori.

Igurikimen horiek Gizarte Segurantzako afiliazioak izandako bilakaerarekin bat datoz (2023ko urtarrileko-otsaileko batezbestekoa); kopurua 986.232 pertsonakoa izan da, eta erregistratutako langabezia, aldiz, 112.601 pertsonakoa. Bi zifra horiek 2022ko aldi berean erregistratutakoak baino nabarmen hobeak dira (+11.402 eta -3.279 pertsona, hurrenez hurren), eta baita pandemia eta inflazio-krisi aurreko egoerakoak, 2020koak, baino hobeak ere (+14.671 eta -4.844 pertsona).




6 | eta familiako ekonomiaren gaineko igurikimenak ere suspertu egin dira

Etxeko ekonomiaren gainean EAEko familiek adierazitako igurikimenek susperraldi-joera erakusten dute, ekonomia orokorraren eta langabeziaren inguruan bezala: nabarmen hobetu dira (+11 puntu), baina oraindik ere balio negatibotan (-10) daude, nahiz eta aurreko bi hiruhilekotan izandako emaitza okerrenetatik aldentzen ari diren (-25 eta -21).

Etxeko egoera ekonomikoaren inguruko igurikimenek izan duten hobekuntza hori ekonomia orain arte mantendu (% 56,5etik % 62,5era) edo hobetu egingo dela (% 3,8tik % 10,3ra) uste dutenek izandako iguerak ahalbidetu du, okertu egingo dela uste duten familien taldeak izandako jaitzierarekin kontrajarrita (% 39,7tik % 27,1era).

Familiako ekonomiaren igurikimenak lotuta daude konfiantzaren beste bi elementurekin: langabezia (-6) eta prezioak (-7). Bi adierazleak balio negatibotan daude, baina nabarmen hobetu dira aurreko hiruhilekoekiko; horrek, etxeko ekonomiarekin lotutako konfiantza hobetu du.




7 | horren ondorioz, aurrezteko igurikimenek gora egin dute

EAEko familien artean nabarmen hobetu dira aurrezteko gaitasunarekin lotutako igurikimenak 2022ko laugarren hiruhilekoko datuekin alderatuta (+15 puntu), eta 2023ko lehen hiruhilekoan neutraltasunetik gertu dagoen baliora iritsi dira.

Zehatzago esanda, hurrengo hamabi hilabeteotan aurreztu egingo dutela uste duten (seguru asko edo ziur) familien kopurua igo (% 44,4tik % 51,3ra) egin da. Aldiz, hurrengo urtean ezingo dutela aurreztu dioten familien kopuruak beherakada (% 55,6tik % 48,7ra) izan du.

Amaitzeko, aipatzekoa da erreferentziazko interes-tasen igoerak (2023ko otsailean, hamabi hilabeterako Euriborra % 3,725ekoa izan da; Espainiako Bankua) oraindik ez duela aurrezteko modu tradizionaletan (banku-gordailua) eraginik izan edo behintzat ez duela eragin nabarmenik izan, eta hori aurrezteko gogoia galtzea eragiteko faktore erantsia izan daiteke.



8 konfiantza-elementuen hobekuntzak ez du baikortasunarekin bat egin

2023ko lehen hiruhilekoan, EAEko familien konfiantza neurtzeko elementuetako bakoitza nabarmen hobetu da, baina hori ez da nahikoa izan EAEko familien konfiantza-indizea ezkortasunetik alden dadin (-9). Dena den, dagoeneko 2022ko amaieran izandako maila (-23) baino datu baxuagotan dago nabarmen.

Hala, izandako hobekuntzek ez dute ekidin EAEko kontsumitzaileen konfiantza-indizea osatzen duten lau adierazleak balio negatibotan jarraitzea, eta jarduera okerragoa izatea ekonomia orokorraren bilakaerari dagokionez (-19), etxeko ekonomiaren bilakaerari (-10), langabeziari (-6) eta aurrezteko gaitasunari (-2) buruzko itxaropenei dagokienez baino. Azken hori izan da bilakaera onena izan duen eta neutraltasunetik oso gertu dagoen adierazle partziala.

Lan-merkatuak izandako emaitza onek eta susperraldi ekonomikoa mantentzeak ez dute konpentsatu testuinguru inflazionistaren larritasuna; izan ere, testuinguru hori orokorra bada ere, ez du saihesten familientzako kezka handia izatea.

Familien konfiantza-indizea eta bere osagarriak. EAE

Indizea...	2019	2020	2021	2022	IIH-22	IIIH-22	IVH-22	IH-23	Aldea	
Familien konfiantza	-2	-22	-6	-11	-7	-22	-23	-9	+14	▲
Ekonomia orokorra	-6	-33	-12	-23	-20	-37	-39	-19	+20	▲
Etxeko ekonomia	-2	-12	-8	-17	-17	-25	-21	-10	+11	▲
Langabeziaren bilakaera	-4	-41	-8	-1	8	-18	-14	-6	+8	▲
Aurrezteko gaitasuna	2	-2	3	-2	1	-6	-17	-2	+15	▲

↔ (±2 puntuko aldea)

EUSKAL KONTSUMITZAILEEN EROSKETA-ERABAKIAK

- EAEko familiek uste dute prezioak gutxiago igoko direla
- erosteko unearen inguruko balorazioak ezkorra izaten jarraitzen du
- eta “erosketa handiak” egiteko igurikimenak hobetu egin dira
- aldiz, etxebizitza edo autoa erosteko asmoa ahuldu egin da
- kontsumo handiaren igurikimenak hobetu dira, ezkortasunaren barruan




9 EAEko familiek uste dute prezioak gutxiago igoko direla

EAEko familiak oraindik ere ezkorrek dira prezioen igoerarekin lotutako igurikimenei dagokienez (-7). Hala ere, aipatu beharrekoa da ezkortasun hori arindu egin dela (2022ko lehen hiruhilekotik laugarren hiruhilekora arte: -34, -52, -57 eta - 51).

Hurrengo hamabi hilabeteotan prezioak orain arte baino bizkorrago haziko direla (-22 puntu) eta prezioek erritmo berean gora egingo dutela (+0 puntu) uste duten familietan izandako jaitsierak eragin du bilakaera hori, prezioak erritmo mantsoagoan igoko direla uste duten familiek izandako gorakadarekin (+22 puntu) kontrajarrita. Hala, EAEko familiek prezioen igoerari dagokionez horren azkarra izango ez den joera aurreratu dute.

Igurikimen horiek bat datoz KPI orokorrean eta azpikoan² izandako urte arteko igoerarekin (urtarrila, EIN) EAEn (+% 5,6 eta +% 7,3), Estatuan (+% 5,9 eta +% 7,5) eta EB-27n (+% 10,0 eta +% 8,3, Eurostat). Horrek guztiak baieztatu egin du familiek eta agintari ekonomikoek agertutako kezka, haien ustez ez baitira % 2ko egoerara itzuliko 2024ra arte.

Zure ustez, nola haziko dira prezioak hurrengo 12 hiletan?¹ (pertsonek %a)



¹ Azken 12 hilabetei dagokienez; ² Prestatu gabeko elikagaiak eta produktu energetikoak kenduta


10 | erosteko unearen inguruko balorazioak ezkorra izaten jarraitzen du

Oro har, zer iruditzen zaizu oraingo unea etxerako gaiak (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak...) erosteko?

Prezioen igoerarekin (-7) eta familiako ekonomiaren ahuleziarekin (-10) lotutako igurikimenak EAEko familien erosketa-unea baloratzeko garaian faktore erabakigarriak dira. Hala, balorazio hori zertxobait suspertu den arren (+8 puntu), oraindik ere ezkorra da (-32); hain zuzen ere, hobetu den arren, oraindik ere adierazle negatiboenetako bat da.

Hala, gutxitu egin da erosketa handiak egiteko une hau txarra dela uste duten familien taldea (% 39, -7 puntu). Aldiz, handitu egin da unek berdin diola uste dutenen taldea (% 53, +6 puntu) eta une ona dela uste dutenen taldea egonkor (% 7, +1 puntu) mantendu da. Beste era batera esanda, nagusi dira berdin diola edo une txarra dela uste dutenen taldeak (10 familatik 9).

Erosteko unearen balioztapena¹
(pertsonek %a)



¹ Azken 12 hilabeteetarako datuak

11 | eta “erosketa handiak” egiteko igurikimenak hobetu egin dira


Zure ustez, nolakoak izango dira etxeko erosketak edo gastuak (hala nola altzariak, etxetresna elektrikoak, etxebizitzako konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan¹?

EAEko familien artean, erosketa handiak egiteko igurikimenen indizea nabarmen hobetu da (+10 puntu) eta oraindik ere negatiboa (-7) den arren, ez da aurreko bi hiruhilekoetako bezain ezkorra (-14 eta -18, 2022ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan).

Emaitza honetan eragina du erosketa handiak askoz edo zertxobait handiagoak izango direla (% 14tik % 19ra) edo berdinak izango direla (% 48tik % 53ra) uste duten familien igoerak. Aldiz, zertxobait edo askoz txikiagoak izango direla uste dutenen kopurua jaitsi egin da (% 38tik % 28ra).

Espiral inflazionista barneratu izanarekin (erosketak aurreratzea, prezioetan gerta daitezkeen igoera berrien aurrean babesteko) eta finantzaketa garestitu eta/edo aurrezkiaren ordainsaria suspertu ez izanarekin lotuta egon daiteke emaitza hori.


Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan¹
(pertsoneen %a)




¹ Azken 12 hilabetei dagokienez.

12 | aldiz, etxebizitza edo autoa erosteko asmoa ahuldu egin da

Familien % 1ek baino gutxiagok adierazi du hurrengo hamabi hilabeteotan etxebizitza erosteko asmoa duela. Ratio hori aurreko hiruhilekoekiko egonkorra da. 2022an zehar, etxebizitzaren salerosketako¹ 23.814 eragiketa egin ziren eta hiruhilekoz hiruhileko gutxitu egin da horren dinamismoa (+% 16,6, +% 15,0, +% 12,7 eta +% 7,9 lehen hiruhilekotik laugarren hiruhilekora arte, urtetik urterako tasan). Horrek agerian utzi du finantzaketa garestitu izanaren ondorioz jarduera hoztu egin dela.



Igo egin da hurrengo hamabi hilabeteotan ibilgailua erosiko dutela dioten familien ehunekoa (% 4,5, +2 puntu), baina oraindik ere hamar familatik bederatzik diote ez dutela halakorik erosiko. 2022an, ibilgailu berrien matrikulazioak² berriro ere behera (-% 11,2) egin zuen, baina 2023ko urtarrila-otsailean hobetu egin da (+% 12,1%), susperraldiko joera hori sendotzeko zain.



¹ EIN, Jabetza-eskubideen transmisioen estatistika (etxebizitzaren salmenta); ² Anfac.

13 | kontsumo handiaren igurikimenak hobetu dira, ezkortasunaren barruan

Urteko lehen hiruhilekoan, EAEko familien kontsumo handiarekin eta inbertsioarekin lotutako igurikimenak hobetu egin dira, baina oraindik ere ezkorrak dira. Zehazki,

- Prezioen bilakaeraren inguruan familiek adierazitako igurikimenak nabarmen igo dira (+44 puntu) eta horrek prezioen igoeran dezelerazioa gertatuko dela aurreratzen du.
- Erosketa handiak egiteko oraingo unearen inguruko balorazioa ezkorra (-32) da, baina 2022ko laugarren hiruhilekoarekiko hobetu (-40) egin da. Dena den, 2022ko maila berean (-34, urteko batezbestekoa) jarraitzen du eta horrek agerian uzten du familien zuhurtzia.
- Erosketa handiak egitearekin lotutako igurikimenek nabarmen egin dute gora (+10 puntu) eta, oraindik ere negatiboak (-7) diren arren, aurreko hiruhilekoetakoak baino hobeak dira (-14 eta -18, 2022ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan).
- Etxebizitza eta/edo ibilgailua erostearekin lotutako igurikimenak oraindik ere ahulak dira, baina ibilgailuaren erosketari dagokionez hobekuntza txikia suma daiteke (atzeratutako erabakiak?).

Hitz gutxitan esanda, emaitza hauek agerian utziko lukete EAEko familiek espiral inflazionista (*erosketak aurreratzea, prezioetan gerta daitezkeen igoera berrietatik babesteko*) eta finantzaketa garestitu izana barneratu dutela. Horri guztiari, gainera, aurrezkiaren erakargarritasun-gabezia gehitu behar zaio (*ordainketa ez da berreskuratu*). Faktore horiek guztiak pizgarri bihur daitezke familiek inbertsioak egiteko erabakiak har ditzaten.

Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

	2019	2020	2021	2022	II H-22	III H-22	IV H-22	I H-23	Aldea	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	-20	-22	-41	-48	-52	-57	-51	-7	+44	▲
Erosteke unearen balorazioa	-5	-13	-12	-34	-35	-36	-40	-32	+8	▲
Erosketak egiteko igurikimenak	0	-12	-2	-11	-7	-14	-18	-7	+10	▲


⇔ (±2 puntuko aldea)

ERANSKINA – INDIZEAK

laburpena: familien konfiantza indizea

euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

beste adierazle batzuk



I laburpena: familien konfiantzaren indizea

	2019	2020	2021	2022	II H-22	III H-22	IV H-22	I H-23	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea									
• EAE	-2	-22	-6	-11	-7	-22	-23	-9	▲
• Estatuak*	-6	-23	-13	-27	-27	-33	-28	-23	▲
• EB*	-6	-15	-9	-23	-24	-28	-26	-21	▲
○ Frantzia*	-9	-13	-7	-18	-20	-21	-20	-21	▶
○ Alemania*	-2	-9	-5	-20	-19	-26	-25	-18	▲
○ Danimarka*	--	--	5	-14	-16	-18	-19	-13	▲
○ Herbehereak*	--	--	-4	-26	-26	-30	-29	-21	▲
Osagaiak: familien konfiantza. EAE									
• Ekonomia orokorra	-6	-33	-12	-23	-20	-37	-39	-19	▲
• Etxeko ekonomia	-2	-12	-8	-17	-17	-25	-21	-10	▲
• Langabezia	-4	-41	-8	-1	8	-18	-14	-6	▲
• Aurrezkia	2	-2	3	-2	1	-6	-17	-2	▲
Beste indize batzuk. EAE									
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	-20	-22	-41	-48	-52	-57	-51	-7	▲
• Erosteke unearen balioztapena	-5	-13	-12	-34	-35	-36	-40	-32	▲
• Erosketak egiteko igurikimena	0	-12	-2	-11	-7	-14	-18	-7	▲
Erosketa handiak. EAE.**									
• Etxebizitza	2,1	0,9	1,5	1,2	1,1	1,0	0,8	0,8	▶
• Autoa	6,4	5,3	6,3	6,5	7,0	7,0	2,5	4,5	▶

⇔ (± 2 puntuko aldea)

* I. hiruhileko datuak urtarila-otsaila batez bestekoari dagozkio.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

II euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

	2019	2020	2021	2022	II H-22	III H-22	IV H-22	I H-23	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea									
• EAE	-2	-22	-6	-11	-7	-22	-23	-9	▲
Adin-mailak									
• 25 eta 39 urte bitartean	4	-17	-4	-4	-6	-4	-17	-11	▲
• 40 eta 54 urte bitartean	-2	-22	-7	-14	-9	-27	-27	-9	▲
• 55 eta 64 urte bitartean	-6	-25	-6	-11	-1	-30	-23	-7	▲
• 65 eta 74 urte bitartean	-8	-26	-8	-14	-11	-29	-23	-10	▲
Lan egoera									
• Landuna (soldatapekoa/ norbere kontura)	1	-19	-4	-10	-6	-19	-22	-9	▲
• Langabea	-8	-31	-16	-19	-14	-25	-31	-23	▲
• Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea...)	-6	-25	-7	-12	-8	-26	-22	-7	▲
Familia-unitatearen hileko errenta									
• 1.700 €-rainokoa	-13	-32	-19	-22	-21	-31	-33	-19	▲
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	0	-19	-6	-11	-6	-22	-21	-5	▲
• 2.800 €-tik gorakoa	4	-14	6	-1	6	-14	-15	-2	▲

⇒ (±2 puntuko aldea)

III | beste adierazle batzuk

	I H – 22	II H – 22	III H – 22	IV H – 22	I H – 23 _p	(azkena)
BPG	5,8	5,0	3,8	2,9	--	IV hiruhilekoa
Familien kontsumoa	3,5	3,2	2,7	2,3	--	IV hiruhilekoa
Afiliazioa	0,0	0,9	-1,0	1,7	-0,6	urtarrila-otsaila
Erregistratutako langabezia	-0,6	-2,4	-1,1	-1,0	1,4	urtarrila-otsaila
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	2,4	2,0	-0,2	1,3	--	IV hiruhilekoa
Etxebizitzen salerosketa	39,3	-5,3	-1,5	-16,9	--	IV hiruhilekoa
Ibilgailuen matrikulazioa	-22,5	26,7	-18,8	22,8	-14,9	urtarrila-otsaila

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Anfac. Hiruhilekoen arteko tasa.


Erreferentziako datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, azken aldakuntza behin behinekoa da eta hori kalkulatzeko eskura dagoen azken datua (bi hilabete) hartzen da kontuan.

Erreferentziako datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza

ERANSKINA– METODOLOGIA

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esanahi du indizearen bilakaerak?




I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



¹ *Consumer Confidence Indicator*, dokumentu honetan familien konfiantzaren indize bezala aipatzen dena, kontsumitzaileen iritzia jasotzeko.

II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobegorainoko bitartean) sailkatzen da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

Fitxa teknikoa eta metodologia

Fitxa teknikoa

- Inkesta EAEko 800 laguni egin zaie
- 2023ko otsailaren 6tik 17ra (2023ko I. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

Metodologia

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm